



## ❖ ZINEA

**'Que fue de los Morgan' gaur ikusgai helduentzat**

Ostiralero bezala, helduentzat pelikula emanaldia izango da gaur Biterin. 22:30etan hasita, *Que fue de los Morgan* pelikula izango da ikusgai. Komedia honetan Hugh Grant eta Sarah Jessica Parker aktoreek hartzen dute parte. ||

❖ 'ADIERAZI' EKITALDIA  
**Autobusean joateko izena eman daiteke Garinen**

Bihar *Adierazi* izeneko ekitaldia izango da Bilboko Euskalduna jauregian, eskubide politiko eta zibilen alde. Hernanitik autobusa jarri da eta joan nahi duenak izena eman behar du Garinen. Irteera 16:00etan izango da eta ekitaldia 18:00etan. ||

❖ GAZTE ASANBLADA  
**Bilera gaur**

Gaszte Asanbladako kideek bilera izango dute gaur Biterin, arratsaldeko 18:00etan. Bertan, hitz egingo dute eski irteeraren, mendi martxaren eta inauterien inguruan. ||

❖ KONTZENTRAZIOA  
**Gaur Plazan, «presoen eskubideak eta adierazpen askatasuna aldarrikatzeko»**

Hernaniko preso politikoen senideek jakinarazi dute beraien senideak borrokaldi batean daudela, eta aste honetan, zehazki, baraualdian daudela. Hori horrela, azaldu dute: «beharrezkoa ikusten dugu guk ere gure senideen eskubideak kalean aldarrikatzea eta dei egiten diegu heritarrei presoen eskubideak eta adierazpen askatasuna aldarrikatzeko gurekin». Kontzentrazioa Plazan izango da, 20:00etan *Gaixo laria* eta *kondena osoa bete* duten presoak *etxera* lemapean. ||

## Ereñotzuko auzo udala onartu zen atzo Plenoan, aho batez

Plenoan onartuta, prozesuak aurrera jarraitzen du. Hurrengo pausua da auzoan erreferenduma egin eta memoria osatzea. Ondoren, Diputazioak eman beharko du onarpena.

HERNANIKO Udalak Ereñotzuko auzo udala onartu zuen atzo Plenoan, aho batez. Atzoko onarpena aurrerapauso handia da auzo udala sortzeko bidean. Udalak eta auzo elkarteak lan handia egin dute proiektua elkarrekin zehazten, eta horren ondoren etorri da erabakia. Bertan onartu ziren auzo udalak izango dituen konpetentziak, eta zenbatekoa izango den aurrekontua, proiektuak aurrera eramateko.

**Prozesuak aurrera jarraitzen du**

Auzo udala sortzeko bidean, hurrengo pausua izango da erreferenduma egitea. Erreferenduma Udalak antolatuko du, eta auzo elkartearen laguntza izango du. Helburua da, udaberri aldera egitea. Erreferendumaren emaitza interesgarria izan liteke nahiz eta binkulantea ez izan.

Erreferenduma eginda, azkeneko pausua izango da Diputazioak Ereñotzu auzo udal gisa onartzea. Horretarako, bidaliko dizkiote Diputazioari hiru dokumentu. Alde batetik, Sideco enpresak egindako lana, Udalak hala eskatuta, Udaleko sail guztietako teknikarien iritzia jasotzen duena. Bestetik, Ereñotzu bailaran auzo udala eratzeko memoria, Udalak onartua. Eta azkenik, erreferendumaren emaitzarekin egingo den txostena.

**Espero dute Diputazioak erabakia udazkenerako hartzea**

Diputazioak erabakia udazkenerako hartzea espero du auzo elkarteak. Horrela, hurrengo



Apaietxean kokatuko da auzo udala.

Ereñotzuko auzo udala bost kidek osatuko dute: alde batetik auzo alkatea izango da, eta batzarretan beste lau kide izango dira. Aukeraketa 2011ko hauteskundeetan egitea espero dute.

hauteskundeetan bozkatzeko aukera izango da. Helburu dute, auzo udaleko hauteskundeak egitea Udal hauteskundeekin batera, 2011n.

**Auzo alkatea eta lau kide**  
Hauteskundeetan auzo uda-

la osatuko duten kideak aukeratu dira.

Ereñotzuko auzo udalean bost kide izango dira. Alde batetik, auzo alkatea; eta bestetik, auzo batzarretan, alkateaz gain, beste lau kide ere izango dira. ||

### Auzoaren mantentze lanak izango dira, batez ere, auzo udalaren konpetentzia

Ereñotzuko Auzo Udalaren konpetentzia izango dira, hau da, bere esku izango dira, batez ere, mantentze lanak.

Bere ondarea administratu eta zainduko du. Mendi eta landen garapenaz arduratuko da, alegia, etxe eta baserrietara iristeko bideen mantentze lanez arduratuko da. Herriko mantentze lanak ere egin beharko ditu, leku publiko, urbazazio eta lorazaintzakoak. Eta baita ere, garbitu, mantendu eta zainduko ditu udalaz peko eraikundeen eraikinak. Guzti hauen artean daude, bolotokia, ur biltegia, kirol gunea, Epeleko parkea, eta abar luze bat.

**Hernaniko Udalaren ekarpen ekonomikoa**

Hernaniko Udalak auzo udalari emango dion diru ekarpena Hernaniko aurrekontuaren arabera kalkulatu da. Pertsonal gastuak, Hernaniko aurrekontuaren %0,7 izango dira. Ondasun Arrunt eta zerbitzu gastuetarako %1,7. Transferentzia arruntetarako %0,50. Inbertsio errealetarako %2. Eta Inbertsioetarako urteko kopuru finkoa izango da 30.000 euro.

**LANGILE IKASTOLA**

Matrikula zabalik (2-16)

otsailaren 1etik 12ra  
Non: Laubidietan  
Ordutegia: 9:00-13:00 eta 14:30-17:30

Telefona: 943 555 423      laubidieta@langile.com

MEABE ikastetxea bisitatzeko aukera, otsailaren 8tik 12ra, goizez: 10:00etatik 11:30etara, eta arratsaldez: 15:30etatik 18:00etara

www.langile.com

**ANBOTO TABERNA**

BERRIZ ERE IREKITA !!!

GAUR ARRATSALDEKO 17:00 ETATIK AURRERA

ORNOLAGA PLAZA - HERNANI

**URUMEA IKASTOLA**

Haur Hezkuntza (2-6), Lehen Hezkuntza (6-12)

Matrikula: otsailaren 1etik 12ra bitarte  
Non: Urumean (Gay Mur eraikina, Larramendi 18)

Ordutegia:  
09:00 - 12:00 / 14:30 - 16:00  
943 55 04 72

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
☩ FARMAZIAK ● Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● Gauez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA** ● **GAUR** Zerua tapatuta egongo da eta tarteka zaparradak botako ditu, eguerditik aurrera batez ere. Haizea harrotuta ibiliko da eta tenperatura ez da aldaketarik izango. Min.6° / Max.9°  
● **BIHAR** Antzeko giroarekin hasiko dugu asteburua. Zerua ilun izango da eta zaparradak botako ditu. Tenperatura ez da aldaketarik izango. Min.5° / Max.7° (euskalme)

## ❖ ODOL EMAILEAK

# Hernaniarrek 1.142 aldiz eman zuten odola, iaz

Estrakzio horietatik 788 Hernaniko anbulatorioan egin ziren eta gainontzeko 354ak Donostian. 2008an, anbulatorioan, 807 estrakzio egin zituzten, 19 gehiago.

HERNANIARREK egindako odol estrakzioak igo egin ziren 2009an. Herrian bertan, anbulatorioan, 788 odol estrakzio egin ziren, eta Donostian 354. Hortaz, guztira, hernaniarrek 1.142 aldiz eman zuten odola 2009an.

**Anbulatorioan 2008an baino estrakzio gutxiago**  
Hernaniar guztiak kontuan hartuta, 2007an baino odol estrakzio gehiago izan ziren joan den urtean. Hala ere, Hernaniko anbulatorioan egindako estrakzio kopuruak behera egin du. 2008an 788 estrakzio egin ziren Hernanin, eta 2008an 807. Hau da, aurten, 19 estrakzio gutxiago egin dira Hernanin.

	2008	2009
Urtarrila	51	56
Otsaila	56	68
Martxoa	70	71
Apirila	56	51
Maiatza	67	55
Ekaina	87	73
Uztaila	60	74
Abuztua	68	69
Iraila	77	69
Urria	68	77
Azaroa	65	61
Abendua	81	64
	<b>806</b>	<b>788</b>

2008-2009an anbulatorioan egindako estrakzioak.

**Urrian estrakzio gehien**  
Hilabete guztiak kontuan izanez gero, urrian egin ziren estrakzio gehien, 77. Segidan, estrakzio gehien egin diren hilabeteak izan dira uztaila (74), ekaina (73), eta martxoa (71).

Estrakzio gutxi egin diren hilabeteak berriz, izan ziren apirila (51), maiatza (55), eta urtarrila (56).

**Hogeita hamar odol emaile berri 2009an**  
Izaten dira hilabetero-hilabetero, odola ematera joaten diren herritarrak. Baina, hala ere, berrien beharra badagola adierazi du Odol Emaileen Elkartek. Iaz, 30 herritar berri animatu ziren odola ematera. Berri gehien urrian

bildu ziren, 4. Organo donantei dagokien, iaz 6 pertsonen eman dute izena.

Iaz odol emaile berri gehien urrian bildu ziren, 4. Organo donantei dagokien, 6 izan ziren iaz.

**Gipuzkoan 32.617 odol estrakzio egin ziren**  
Odol Emaileen Elkartek emandako datuen arabera, Gipuzkoan ere behera egin dute estrakzioek. Joan den urtean 32.617 egin ziren, eta 2008an 32.700; hau da, 83 gehiago. Odol Emaileen Elkartek

jakinarazi duenez, 2010eko helburuetako bat da emaile gehiago lortzea, eskaria ere geroz eta haundiagoa baita. Bestalde, baita ere adierazi dute Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa hobetu nahi dutela.

«Lankidetzaren beharrezkoa»  
Odola norberaren borondatez ematea osagai terapeutiko estrategikoak lortzeko bide bakarra dela dio Odol Emaileen Elkartek eta «gizarte helduaren ikurra». Hori horrela, dei egin die herritarrei: «urtarrilak eta otsailak bereziki ahulak dira odol emateetarako, beraz, gogorazten da herritarren lankidetzaren beharrezkoa dela». II

## ❖ EUSKAL HERRIARI BURUZKO SOLASALDIAK Izena emateko aukera astelehenetik aurrera

Otsailaren 9tik 23ra bitarte, Euskal Herriari buruzko 5 solasaldi izango dira Biterin, Udalak eta Amaiur 1512-2012-Nafarroa bizirik elkarrekin antolatuta. Doan izango dira, baina alde aurretik izena eman behar da. Astelehenetik ostiralera izango da aukera. II

## ◆ SANTA BARBARA ELKARTEA

### Mus txapelketan izena emateko epea zabalik dago

Santa Barbara elkarteak mus txapelketa antolatuta du eta parte hartu nahi duenak izena emateko aukera du otsailaren 20a arte. II

**Atez ateko zalantzak argitzen**

Zein gaixotasun eragiten ditu errauste-plantak?

Minbizia, umekietan deformazioak, antzutzak, eta abar. Hildako haurren batazbesteko kopuruak ere gora egiten du.

Bidal: zure galdere helbide honetara: info@hernaniatezate.net  
Galdere orantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **JOSE VIDAL PAZOS**  
JAUNA  
Urtarrilaren 3an Motrilen (Granada) hil zen, 72 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta  
- Goian Bego -  
Emaztea: Arantza Aranguren; Seme-alabak: Alfonso, Arantxa eta Esteban Garmendia, Josune eta Mario Franco, Ruben eta Veronica Alcoz; bilobak: Adrian, Endika, Agustin eta Stella Maris; senideak: Charo, Magdalena eta Mikel eta gainerako ahaideak.  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezteela **BIHAR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JUAN BATAIATZAI-LEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
Hernanin, 2010eko urtarrilaren 29an  
Helbidea: Victor Hugo, 7 - 4D

**II. URTEURRENA**  
† **Blas Isostegi Tolosa**  
2008ko urtarrilaren 29an hil zen, 85 urte zituela  
Bi urte dira joan zinela gure artekin urrutiko orimenean, gure ondoan izango zaitugu beti  
**Etxeokak**  
Hernanin, 2010eko urtarrilaren 29an

## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

**Pisua salgai Karabelen.** 60m<sup>2</sup>, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.  
**Pianoa salgai.** Yamaha U1F modelo, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.  
**Hernanin (Tilos-etan) Duplex-a salgai** estrenatzeko (eraikuntza berria). 130m<sup>2</sup>, 3 logela, 2 komun, sukaldea (osagai guztiekin) eta igogailua. 442.000€. Deitu: 656 316 031.  
**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.  
**Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**  
**Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**ibai mendi**

**MERKEALDIA**  
**AZKEN PREZIOAK**

UMEEN ARROPAK %50  
EMAKUMEAREN MODA %50  
MENDIKO JANTZIAK %30 - %40

Nafar kalea 23  
- 943 33 37 24 - HERNANI